

Azken hogei urteotako zereal uztarik txarrena jaso dute Nafarroan

Euri urriak hegoaldeko lurren ekoizpena amildu du • Zenbat eta iparrerago, orduan eta hobeia izan da uzta • Ekilore gero eta gehiago landatzen ari dira

Iker Aranburu

Lehorteak zerealen uztari egin dion kalteari zenbaki bat jarri diote Nafarroan: -%7. Intia nekazaritza arloko sozietate publikoaren arabera, maila horretan txikitu da zerealen uzta Nafarroan. Ez dirudi jaitsiera handia, baina iaz, euri faltaren ondorioz orduan ere, jada %15 gutxiago bildu zuten, eta, ordukoari aurtengoa gehituz, ondorioa kezkarria da: aurtengo uzta azken hogei urteotako eskasena izan da.

Erriberri egindako jardunaldi batean, Nafarroako kooperatiben %85en emaitzak jaso ondoren, Intiak kalkulatu du aurten 630.000 tona zereal jaso dituztela. Iaz, berriz, 678.000 tona izan ziren. Aurtengoa azken hamar urteotako batezbestekotik %21 beherago dago, eta, Intia datuak biltzen hasi zenetik, duela 32 urte, lau besterik ez dira okerragoak izan.

Baina, 2022koarekin alderatuta, bada desberdintasun handi bat: iaz hobeto eutsi zioten ekoizpenari Erriberri, eta okerrago, berriz, handik iparraldera doazen eskualdeetan. Aurten, berriz, doidoi kontrakoa gertatu da, eta, zenbat eta iparralderago jo, orduan eta uzta hobeagoa izan dute.

Erriberri eragin dio batez ere neguko eta udaberri hasierako euri faltak. Ureztatzen ez diren lur batzuetan ez dute uzta bildu ere egin, txikiegia zelako, eta bes-

te batzuetan hektareako ehun kilo baizik ez dira bildu.

Huskeria bat da kontuan hartuta zenbat jaso duten Iruñerriko ipar-mendebaldean: 5.000 kilo hektareako. Eremu horretan «errendimendu handia» izan du lurrak, batez besteko tenperaturak ez baitira hain beroak izan, eta udaberri euria egin baitu. Intiak, ordea, nabarmendu du ekaineko ekaitz ugarietan izandako txingorak kalteak eragin dituela lursail batzuetan.

Nafarroa erdialdean, berriz, «balantze negatiboa» egin du Intiak, hektareako bildutako 3.400 kiloak batezbestekotik behera egon dira eta.

Ilarrari eskainitako hektareak lehen halako hiru dira: 2.800 hektarea ziren lehen, eta 9.000 orain

Hirugarren urtez jarraian, Nafarroako nekazariak gari gehiago landatu dute garagara baino. Baina gehien hazi den laborea ilarrarena da, Intiak azaldu duenez, NPB Nekazaritza Politika Bateria horretako laguntzak eman baititu. Ilarrari eskainitako hektareak lehen halako hiru dira: 2.800 hektarea ziren lehen, eta 9.000 orain.

Koltzarako lurrak pixka bat gutxitu dira, eta pixka bat handitu, berriz, ekilore landaketak. Azken hori 2022an ere gehiago landatu

zuten nekazariak, Ukrainako gerrak berekin ekarri baitu produktu horren eskasia eta garestitzea, Ukraina haren esportatzaileak garrantzitsuena baita.

Orotara, igoera txiki bat izan da (+%2,3) zerealetarako lursailen hedadura: 193.368 hektarea izan dira, Nafarroan landatutako %55 inguru.

Euri eskasiak, ordea, izan du ondorio on bat: hezetasunak ekarri ohi dituen gaixotasunak ez dira agertu, eta zerealek, oro har, osasun ona izan dute.

Araban ere patta

Araban ere laboreetako lurren parte nabarmena betetzen du zerealak, baina oraindik ez dute egin uztaren balantzea. Udaberri hasieran, ohartarazi zuten asko txikituko zirela, baina, maiatzeko eta ekaineko eurien ondorioz, datuak uste baino hobeagoak izango zirela onartu zuten nekazarien ordezkariak lehorteari buruzko mahaiaren bileran.

Egoera askoz okerragoa izan da Espainian, han euri falta oso nabaria izan baita zerealak landatzen diren eskualdeetan, eta bereziki hegoaldekoetan. Ekainean, %45eko galera izan zitekeela iragarri zuten.

Iazkoa baino uzta hobeia izan du, berriz, EBko ekoizlerik handienak, Frantziak.